



EMAKUME LANGILEAREN NAZIOARTEKO EGUNERAKO MANIFESTUA

Martxoaren 8a oroipenerako, salaketarako eta mundu osoan eta esparru guztietan emakume eta gizonen arteko berdintasuna aldarrikatzeko eguna da. Helburu honetatik urrun gaude oraindik, eta hala adierazten dute urtero lan okupazio datuek, soldaten errealitateak, planeta osoan zehar emakumeak jasaten dituen esplotazio era ezberdinek, sexu bortxaketek eta genero indarkeriak, eta egun emakumearen garapen pertsonala eta profesionala oztopatzen duten zama sozialek eta familiarrek. Pobreziaren feminizazioa, botere eta gizartean izen ona duten esparruetan emakumearen presentzia oso txikia izatea (enpresa buruen %1 da soilik) eta, alderantziz, merkataritza produktua bezala ikustaraztea, gutxiespen fenomeno beraren hiru ardatzak dira, eta eragozpen bat berdintasunean oinarritutako gizarte bat lortzeko bidean, zeinean emakumeek y gizonek euren bizitzak autonomiaz, justiziaz eta askatasunez erabaki eta planifikatu ahalko dituzten.

Ezberdintasunaren datuak ikaragarriak dira. Manos Unidasen datuen arabera, munduan dauden 1.300 milioi behartsuetatik %70 emakumeak dira, eta zahartzarora heltzerakoan pobrezian bizitzeko aukerak gizona baino handiagoak dira (OIT). Hala, urtero gutxienez 5 eta 10 urte bitarteko 2 milioi neska esklabo sexual izateko salerosten dira. Bi orduro emakume bat sastakatu, harrikatua, ito edo erre egiten da ustez familiaren "ohorea" gordetzeko. Gatazka armatuetan emakumearen giza eskubideen zaurtzapena (erailketa, bortxaketa, esklabutza sexuala eta derrigorrezko haurdunaldiak) gerra arma bezala erabiltzen da. Munduan 135 milioi neska eta emakume mutilazio genitala jasan dute. Kopurua urtero bi milioitan hazten da (AI). Banku Mundialaren datuen arabera, gutxienez munduko emakumeen %20 tratatu txar fisiko edo sexu indarkeria jasan izan du. Munduan dauden 876 milioi alfabetatugabekoen artean bi herenak emakumeak dira (Nazio Batuak). Eskolara ez doazen munduko 121 milioi haurretatik 65 milioi neskak dira (UNICEF). Emakumeek gizonen baino aukera gutxiago dauzkate etengabeko prestakuntza egiteko enpresetan (OIT).

Nazio Batuen Mileniotako Zortzi Helburuetako bosgarrenak dio: 2015 urterako amatasun hilkortasun tasaren hiru laurdena jaistea lortuko dugu.



Baina espezialista ugarien ustetan, amatasun hilkortasun tasa munduan gora doa, "garapenaren aurkako kolpe lotsagarria" PNUD-ren hitzetan. Urtero munduan milioi erdi emakume haurdunaldian edo erditzean hiltzen dira (PNUD). Bestalde, emakumeak etxean ordaindu gabe egiten duen lana munduko produkzio ekonomikoaren heren bat da (Nazio Batuak). Lan egiteko adinean dauden emakumeen %54ak bakarrik lan egiten du, aldiz gizonen 80ak (OIT). Emakumeek gaizki ordaindutako eta gutxi babestutako lan gehienak egiten dituzte (OIT). Eta emakume etorkinak esplotazioa eta abusuak jasateko zaurgarriagoak dira (OIT).

Unión Interparlamentariaren (UIP) datuen arabera, munduko 41.845 parlamentarietatik %14,6 bakarrik dira emakumeak. Munduko zazpi herrietan bakarrik emakumeek parlamentuko aulkien %30 baino gehiago betetzen dituzte (PNUD 2003). Eta bakarrik sei herrietan emakumeak ministerio mailako karguen %30 edo gehiago hartzen dituzte.

Egia da azkeneko urteetan Euskal Herrian zein Estatuan berdintasunerako legeak eta planak onartu eta martxan jarri izan direla, emakumeek parte hartzen duten gizarte, lan eta politika esparrutan berdintasuna bermatzeko ekimenak bultzatzen dituztenak. Hala, Hilaurtze Legearen zabaltzea eta beste hainbat neurri berezi, ama langileentzako laguntzak, aitentzako baimenak eta eszedentziarako erraztasunak askatasunerako aukera berriak irekitzen dituzte.

Baina egia da krisialdi ekonomikoak neoliberalismoaren espresiorik zakarrera agerian utzi duela, emakumearengan ondorio bereziak izan dituelarik, enpresetan egiten ari diren "erregulazio" prozesuen biktima bihurtuz. Berez emakumeen soldata gizonezkoena baino %20 baxuagoa bada, lan bera eginez, emakumeen langabezia tasa altuagoa da eta enplegu kolokatasuna sektore batzuetan emakumeek batez ere pairatzen dute, eta gainera, egoera ekonomiko hau dela eta, amatasunari lotutako eskubideek enpresari gainerako koste ekonomikoa suposatzen diotela aitzaki hartuta itzuli egin da diskriminazioa kontratatzerakoan.

Egoera halakoa, martxoaren 8 honetan gure aldarrikapena hurrengo ekimen eta neurrien inguruan egingo dugu:

1. Enpresatan ematen den diskriminazioarekin bukatzea (baldintzetan eta kontratazioan).
2. Emakumeen eta gizonen arteko korresponsabilitatea bultzatzea bizitzaren maila guztietan.
3. Genero indarkeriarekin bukatzea.
4. Publizitatetik eta komunikabideetatik sexismoa deuseztatzea.



5. Emakumearen partehartzea erraztea gizartean, enpresa munduan eta politikan.
6. Pobrezia egoerei aurre egitea, etxean eta familiarekin urtetan lan egin ondoren pobrezian bizi dira emakume edadetu asko (alargun pentsioak).
7. Lan kontratuen eta hitzarmen kolektiboen derrigortasuna ezartzea etxeko langileentzat, gehienak emakumeak eta etorkinak.
8. Dependentzia Legea ondo eta nahiko garatu beharra, emakumearen autonomiarekin lotura handia baitu.
9. Emakumearen erabakitze eskubidea bermatu bere aukera sexualari eta amatasunari dagokionez: ez esateko eskubidea eta hilaurtze eskubidea errespetatzea.
10. Gizon eta emakumeen arteko parekidetzean aurrera egitea.